

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5422

1910/2020 EBAZPENA, azaroaren 26koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Mercedes Varona Peinador andrea aldi baterako izendatzen den Osakidetzako Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko buru, lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentearen ekainaren 19ko 1017/2020 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESIko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Buruaren lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.

Balorazio Batzordeak kalifikazio-proposamena egin dio aurkeztutako eskatzailearen proiektuari eta haren defentsari, merezimenduei eta euskara-ezagutzari dagokienez; eta, horren ondorioz, izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Mercedes Varona Peinador andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESIko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Buru.

Arau hauek oinarri, ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioko 8/1997 Legearen 28. artikulua 3. arau komuna; uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, lanpostu funtzionalak arautzen dituen; azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, Osakidetzako Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen; uztailaren 3ko 100/2018 Dekretua, Osakidetzako Ente Publikoko erakunde sanitario integratua, bereziki erakunde sanitario integratuetako zuzendari gerenteari eskumenei buruz ezarritakoari dagokionean; Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Instrukzioa, zerbitzuburu eta atalburu fakultatiboan lanpostuak betetzearen gainekoak; eta aplikatu beharreko arauak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Mercedes Varona Peinador andrea Osakidetzako Bilbo-Basurtuko ESIko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzu Sanitarioko Buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.— Aldi baterako izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin; 2020ko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Izendatutako pertsonak, aipatutako epea amaitutakoan, lanpostua utziko du, egoera horren luzapena onartu ezik, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.— Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango da, alde aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

2020ko abenduaren 18a, ostirala

Bosgarrena.– Interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESIko Zuzendaritza Medikoari eta Langileen Zuzendaritzari Ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2020ko azaroaren 26a.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari gerentea,
EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA.